

**FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 5/2021 ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUA,
IRAILAREN 29KOA. ONESTEA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO
ZERGAREN FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA.**

AURRERANTZEAN, FORU ARAUA

(ALHAO, 114. zk., 21-10-6koa)

(Arabako Biltzar Nagusiek baliozkotua 2021ko urriaren 27an hartutako erabakiaren bidez)

2021erako Zerga Neurriei buruzko urtarrilaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarriak baimena ematen dio Foru Gobernu Kontseiluari zenbait foru arau behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta bilduko dituzten testu bateginak onesteko; besteak beste, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 45/1989 Foru Araua.

Araugintzako foru dekretu honen xedea da, beraz, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Foru Araua bateratzea, Batzar Nagusiek emandako baimena baliatuz. Zerga hori 1990eko urtarrilaren 1ean hasi zen eskatzen lurralde historiko honetan.

Zerga hori, Udalen kasuan, aukerakoa da, eta xede du karga ezartzea Arabako udalerrietan egiten diren eraikuntzei, instalazioei eta obrei, baldin eta horiek egiteko beharrezkoa bada obra edo hirigintza lizentzia eskuratzea, lizentzia eskuratu ala ez, edo baldin eta erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiko jakinarazpena aurkeztu behar bada, betiere lizentzia ematea edo jarduera kontrolatzea zerga ezartzen duen udalari badagokio.

Arau honek proportzionaltasun printzipioa errespetatzen du, eta xedapen orokor honen bidez ase nahi den premiari erantzuteko beharrezkoak diren arauak ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebehar gutxiago jartzen dienik.

Ekimen honen bidez, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da nazioko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Araugintzako foru dekretu hau izapidetzean, gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 129. artikuluan arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz egindako araudi inaktuaren txostenak aztertu dira.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 7. artikuluan Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren testu bategina onestea.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren testu bategina onesten da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Araudi indargabetuaren aipamenak.

Ordenantzetan eta beste xedapen batzuetan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauari egiten zaizkion arau erreferentziak onesten den testu bateginari dagozkion aginduei egiten zaizkiela ulertuko da.

Bigarrena. Beste arau aipamen batzuk.

Beste foru arau batzuek edo xedapen orokorrek, gaur egun edo etorkizunean, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauari egiten dizkioten arau erreferentziak onesten den testu bateginari egindakotzat hartuko dira.

Hirugarrena. Arau aipamenak.

Araugintzako foru dekretu honi buruzko erreferentziak foru arau kontzeptuari egingo zaizkio hemendik aurrera.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA. Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira araugintzako foru dekretu honen eta onesten duen testu bateginaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 45/1989 Foru Araua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Araugintzako foru dekretu hau eta onesten duen testu bategina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Bigarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Arabako Batzar Nagusiei araugintzako foru dekretu honen eta onesten duen testu bateginaren berri emango zaie, indarrean dagoen legerian ezarritako izapideak egin ditzaten.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA

I. KAPITULUA

Izaera, zerga egitatea eta salbuespenak.

1. artikulua. Izaera eta zerga egitatea.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga zeharkako tributua da. Zerga egitatea Arabako lurralde historikoko udalerrietan eraikuntza, instalazio eta obra bat egitea da, baldin eta horiek egiteko beharrezkoa bada obra edo hirigintza lizentzia eskuratzea, lizentzia eskuratu ala ez, edo baldin eta erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiko jakinarazpena aurkeztu behar bada, betiere lizentzia ematea edo jarduera kontrolatzea zerga ezartzen duen udalari badagokio.

2. artikulua. Salbuespenak.

1. Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen edo toki erakundeen jabetzako eraikuntza, instalazio eta obrak, baldin eta, zergapekoak izan arren, helburua errepideak, trenbideak, aireportuak edo obra hidraulikoak egitea edo herrien saneamendua eta haiek sortzen dituzten hondakin uren arazketa bada, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatu, bai inbertsio berriko obrak izan, bai kontserbazio obrak.

b) Arabako lurralde historikoko udalen jabetzako eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea, baldin eta helburua herritarren zerbitzua edo erabilera bada.

c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 4. artikulua 1. apartatuaren k) letran jasotako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunetan eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea.

2. Udalek zerga hau ordaintzetik salbuetsi ahal izango dituzte lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko egiten diren obrak edo eraikuntza lanak.

II. KAPITULUA

Subjektu pasiboa

3. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, eta testamentu ahalordea edo usufuktu ahaldua baliatzeke duten herentziak, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak badira, hori egiten den higiezinaren jabeak izan ala ez.

Aurreko paragrafoaren ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzat joko da haren gastuak edo kostuak jasaten dituenak.

4. artikulua. Zergadunaren ordezkia.

Eraikuntza, instalazioa edo obra zergadunak egiten ez badu, bere ordezkotzat joko da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen duena, erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena.

Ordezkoak ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

III. KAPITULUA

Zerga oinarria, kuota, hobariak eta sortzapena

5. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zergaren oinarria da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoa, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua.
2. Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga, araubide berezietako berezko beste antzeko zerga batzuk, ez eta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak ere, ez eta profesionalen soldatak, enpresaren edo kontratistaren etekinak ere, ez eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

6. artikulua. Kuota.

Zerga honen kuota kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa aplikatuko zaio.

7. artikulua. Karga tasa.

Zergaren karga tasa udal bakoitzak ezarriko du, baina ezingo da ehuneko 5 baino handiagoa izan.

8. artikulua. Hobariak.

1. Zerga ordenantzek hobari hauek arautu ahalko dituzte zergaren kuotaren gainean:
 - a) Ehuneko laurogeita hamabosterainoko hobaria izango dute, gizarte, kultura, historia eta arte inguruabarrak tarteko, udal interes edo erabilera bereziko deklaratura dauden eraikuntza, instalazio eta obrek, edo enplegua sustatzen dutelako deklarazio hori justifikatzen dutenek.
 - b) Ehuneko laurogeita hamabosterainoko hobaria izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten eraikuntza, obra eta instalazioek:

- Eguzki energia edo beste energia berriztagarriren bat argindarra edo beroa sortzeko sistemak jartzeko egiten badira. Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko: beroa sortzeko instalazioek dagokion administrazioaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak izatea.

- Xedea bada energia birgaitzea A edo B motako energia etiketa lortzeko. Hobariaren ehunekoa energia -etiketa motaren arabera izan ahalko da.

- Xedea bada higiezinaren birgaitze osoa, hots, energia eta irisgarritasuna birgaitzea. Horretarako, energia birgaitzeak helburu izan behar du A edo B motako energia eraginkortasunaren etiketa lortzea.

- Udalerriko auzo eta zonen birgaitze osoaren proiektuen harira egiten badira, energia berriztagarriak erabiltzeko.

Letra honi dagokion hobaria aplikatuko zaie indarrean dauden legeen arabera nahitaezkoak ez diren inbertsioei soilik.

Zerga ordenantzek zehaztuko dituzte letra honetan araututako hobarien funtsezko alderdiak eta formalak, eta baita beste zerga pizgarri batzuekin bateragarri izateko baldintzak ere.

Aurreko a) letran aipatutako hobaria aplikatu baldin bada, letra honetako hobaria aurreko hori aplikatu ondoren ezarriko da.

c) Ehuneko berrogeita hamarrek hobaria izango dute azpiegitura pribatuetan inbertsioak sustatzeko planekin lotutako eraikuntza, instalazio eta obrek.

Aurreko a) eta b) letretako hobariak aplikatuta baldin badira, letra honetako hobaria aurreko horiek aplikatu ondoren ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

d) Ehuneko berrogeita hamarrek hobaria izango dute babes publikoko etxebizitzetara lotutako eraikuntza, instalazio edo obrek.

Aurreko letretako hobariak aplikatuta baldin badira, letra honetako hobaria aurreko horiek aplikatu ondoren ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

e) Ehuneko laurogeita hamarrerainoko hobaria izango dute desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun eta bizi baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek.

Aurreko letretako hobariak aplikatuta baldin badira, letra honetako hobaria aurreko horiek aplikatu ondoren ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

f) ⁽¹⁾ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneetan kokatutako higiezinetan eraikuntzen, instalazioen edo obren aldeko ehuneko 95erainoko hobaria.

Aurreko letretako hobariak aplikatuta baldin badira, letra honetako hobaria aurreko horiek aplikatu ondoren ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

f) (2) (Bi f) letra daude eta laster zuzenduko da) Ehuneko 50eko hobaria, gehienez, ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea duten jarduera ekonomikoen eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan.

Hori dela-eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutzat joko da hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea, konpontzea eta balorizatzea bada.

Zerga ordenantzan hobari ehuneko desberdinak ezarri ahal izango dira jarduera ekonomikoen arabera.

Letra honetan xedatutako hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuta ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

g) (2) Ehuneko 90eko hobaria, gehienez, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak egiten diren eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da instalazioak administrazio eskudunak emandako homologazioa edukitzea.

2. Apartatu honetan aipatzen diren hobarien gainerako funtsezko alderdien eta formalen arauketa zerga ordenantzan ezarriko da. Besteren artean, zerga ordenantzak arautuko du aipatutako hobari batzuk edo guztiak aldi berean aplika daitezkeen ala ez.

9. artikulua. Sortzapena.

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta lizentzia eskuratu gabe eduki.

IV. KAPITULUA

Kudeaketa

10. artikulua. Kudeaketa.

1. Konturako behin-behineko likidazioa egingo da, eraikuntzari, instalazioari edo obrari ekiten bazaio honako egoera hauetan: aginduzko lizentzia eman bada edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu bada; oraindik ez bada lizentzia eskatu, eman edo ukatu, edo ez bada erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu. Honela kalkulatu da zerga oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta elkargo ofizial eskudunak ikusonetsi badu, ikusonespena aginduzko betekizuna izanez gero.

b) Zerga ordenantzan modulu edo indizeak ezartzen badira berariaz, horiexen arabera.

2. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak ikusirik, eta horien benetako kostu erreala kontuan hartuta, udal administrazioak, administrazio egiaztapen egokia dela medio, aurreko apartatuan aipatzen den zerga oinarria aldatuko du, hala badagokio; behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu edo itzuli egingo dio, hala badagokio.

3. Udalek autolikidazio bidez eskatu ahal izango dute zerga hau.

4. Udalek zerga hau eta lizentzia emategatiko tasa batera kudeatzeko sistemak ezarri ahalko dituzte beren zerga ordenantzetan.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.

Nahiz eta Ondasun Higiezinaren Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauaren bidez udal erakundearen tributua kendu eta tributua horiek arautzen dituzten xedapenak indargabetu, Administrazioak eskubidea du, xedapen horien arabera, aipatutako Foru Araua indarrean sartu aurretik sortutako zorrak eskatzeko.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

OHARRAK

(1) 31/2021 Foru Araua, abenduaren 15ekoa.
(ALHAO, 145. zk., 21-12-27koa).

(2) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa).